



Josu OZAITA Antropologoa

Gau beltzeko janak

O

rdu aldaketarekin batera, gau beltza iristen da, eta askok beste bizi-modu bati ekiten diogu. Etxean denbora gehiago egoten gara eta, goiz iluntzen duenez, udan ohi-koa ez den orduetan afaltzen dugu: neguan sartzen garen sentsazioa izan ohi dugu, nahiz eta oraindik egun batzuk falta.

Azken urteotan, aldi berri honi hasiera emateko, erritu berria sortzen eta zabaltzen ari da Euskal Herrian: Gau Beltza. Berreskuraturiko festa baino, bir-sorturiko festa dela esan dezakegu. Lehen ez baitzen Gau Beltza izenarekin jai berezirik, baina euskal kulturaren sustraiturikoa da. Euskaraz izaten da eta euskal kulturako hainbat elementu gaurkotu ditu: gaztainak jatea, puska biltzeak berreskuratzea, bertako beldurrezko istorioak jasotzea, eta, baita ere, kalabazak hartu, hustu, aurpegi forma eman eta beldur eragile bilakatzea.

KALABAZEN BERPIZTEA

Duela hamarkada batzuk, Euskal Herrian, orduko hurrek, arbi edo kalabazak hartu, hustu, eta begiak zein ahoa zulatzen zizkieten labanaz, oster, kandelarta sartu eta argia egin zezan, buru-itxura hartuta. Beldurra sortzea zen helburua bide bazterretan jarrita. Jaime Altuna eta biok buruturiko etnografian, makina bat testigantza jaso genituen lurralde guztietan. Oso ohikoa zen udazkenean, iluntasuna lehenago etortzen den egunetan, kalabazen aroan. Baina urriaren 31ren eta azaroaren 1aren bueltan, arruntagoa bilakatzen zen, garai hartan, arimak etortzen zirela sinesten zutelako, kristautasuna nagusi zen garaian.

{gastronomiaren antropologia}

Testuingurua hori zen: herri kristaua. Eta honekin batera, bestelako umezaroa, gaurkoaren oso desberdina. Hurrek ez zuten eskolaz kanpoko jarduera, entrenamendu, ikastaro edo antzekorik. Eta etxean lan egin behar ez zuten aldietan, herrietan jolasten ziren, askotan irudimena erabilita. Udazkenean, aukera ona zen kalabazekin jolastu eta jendea beldurtzeko. Gainera, etxerako bidean, ez zen farolik izaten, ez ziren gurasoak autoz bila etortzen, eta honenbestez, oinez itzuli behar izaten zuten etxera landa eremuan, eskuan kinkea zutela. Eta ezinezko ibilbide horretan, bizirik dagoen kalabaza bat topatzea, sekulako sustoa izan zitekeen. Bihurrikeria zen, eta garai hartan, ez zuen garrantzi berezirik. Hala kontatu ziguten, orduan ere, gurasoek ez zirela halako gauzak egiten uzten.

Urteak igaro eta berriro kalabazen berpiztea etorri da. Badira urte batzuk gure herrietako kaleetan hurrek Halloween ospatzen hasi zirela, askotan,

gurasoen antolaketatik at. Dendetako erakusleiho batzuk apainduta azaltzen dira, eta telebistan, bonbardaketa izan ohi da nagusi. Festa globala bilakatu zena gurera ere etorri zen. Egoera horretan, hainbat herritan Gau Beltzari indarra ematen zaio, bestelako balio, eduki eta gure kultura zein garai berrietara egokituta. Ez dira plastikozko kalabazak erabiltzen, baizik eta baratze-koak. Batzuek erosi egingo dituzte, beste batzuek amona edo aitonari eskatu, eta maiatzean hazia hartu eta eskolako baratzean edo etxeko baratzean ereiten dutenak ere badira. Eta oraindik ere, bihurriagoak direnek, iluntasuna iristean, baratzeren batean lapurtuko dute.

Gaur egun, Gau Beltzaren bezperetan, kalabaza tailerrak antolatzen dira hainbat herritan, haur zein helduen artean, kalabazei aurpegi forma emateko, Gau Beltzean beldurra emateko prestatzeko. Herrietako farolak itzaltzean, benetako iluntasuna sentitzean, kandelak dir-dir egiten dute eta bizia hartzen dute kalabazek.



Urriaren 31n Gau Beltza ospatuko da Euskal Herriko txoko askotan. Josu OZAITA

BASOKO GOXOKIAK

Udazkena denez, gaztainen garaian sar-tzen garenez, hainbat herritan gaztaina janak egiten dituzte Gau Beltzean. Ka-lean, bidoi batean sua, eta honekin ba-tera, mozorroturiko jendea danbolina-ren kirrinka berotuz. Garai batean egunerokotasunean jaten zituzten gaz-tainak. Momentu horretara egokitzen ziren otorduak, eta aldi honetan, gaztai-na izaten zen nagusi. Orain, ordea, ez da ohikoa gaztainak jatea. Kutixi modukoa bilakatu da, eta gaztaina janak festa txi-ki izaera hartu du. Eta haurrek zein hel-duek, erakargarritasuna aurkitzen diote une horri: momentuan bertan eginda-ko gaztainak, suaren gainean dantzan dabilen danbolinaren soinua, eta, egun-kariko orri batean bilduta, gaztaina be-roak. Zuritu eta behatzak zikindu.

Zerbait berezia bilakatu da, eta osti-ralero *txutxeak* jateko ohitura duten haurrentzat, benetako goxoki bilaka-tzen da gaztaina; basoak ematen di-gun goxoki. Hainbat herritako Gau Beltzaren bezperatan, mendira joaten dira familiak, gaztainondoen magale-tan gaztaina lokotxak zapaldu eta aleak ateratzen dituzte, egun handian dastatzeko. Hala, produktuen jatorria ezagutzen dute, basoak ematen duena ikasten, eta historia ikasteaz gain, mendiko gastronomia dastatzen dute.

PUSKA BILTZEEN BERRESKURATZEA

Ez da Gau Beltzeko momentu gastro-nomiko bakarra. Hainbat herritan eske errondak edo puska biltzeak burutzen dituzte. Euskal Herrian, bi alditan ba-natu izan dira jaiak historikoki: bate-tik, udako jaiak. Beste herrietatik jen-dea etorri eta harremanen gune bilakatzen direnak. Bestetik, neguko jaiak. Kanpora begira baino, barrura begirakoak izan ohi direnak: herriko jendeak parte hartzen du batik bat, eta komunitatea indartzeko balio dute. Neguko jaien bueltan, puska biltzeek protagonismo handia zuten landa ere-muko hainbat herritan. Puska biltzea etxez etxe eskean aritzea zen, eta etxe bakoitzak garai hartan soberan zuen jakiren bat ematen zuen: txerria hil be-rri bazuten, txerrikia. Sagardoa egin



Halloweenen olatuaren aurrean, zenbait herritan gau beltzaren alde lanean ari dira azken urteotan. Euskaltzaleen TOPAGUNEA

zuenak, eztarria bustitzeko bixigarria. Oiloak nagusi baziren etxe horretan, arrautzak. Ogia egiten bazuten bertan, ogia. Hala, jaki desberdinak batu eta denen artean jaten zituzten amaieran.

Pertenentzia eta komunitatea egiteaz gain, bestelako eraginak ere baditu: norberak ahal zuena eman eta guztiek batera dastatu eta ospatzea. Ohitura sinple baina polit hauek indarra gal-tzen joan dira, nahiz eta Ageda eskea-ren bueltan edo hainbat herritako inauterietan presentzia izan. Gau Bel-tzarekin batera, erritu hau berreskura-tzen eta zabaltzen ari da hainbat herri-tan. Etxez etxe, txirrina jo eta eskea burutzen da:

Herri askotan Gau Beltzari indarra ematen zaio, bestelako balio, eduki eta gure kultura zein garai berrietara egokituta. Plastikozko kalabazak ez dira erabiltzen, baratzeakoak baizik

Hainbat herritako Gau Beltzaren bezperatan, mendira joaten dira familiak, gaztainondoen magaletan gaztaina lokotxak zapaldu eta aleak ateratzen dituzte, egun handian dastatzeko

“Xumli-xumla,
txingili txangili txango,
gau beltza beltzago,
kalabazek argituko.
Janaria eman arte,
Ez gara joango”

Hala ospatzen dute Gipuzkoako Baliarrainen, adi-bidez. Eta etxe bakoitzean jaki desberdinak ematen dizkiete: patata tortillak, solomoa tomatearekin ka-zolan, etxean egindako bizkotxoak, kroketak, *txu-txeak*... eta dena traktore batean jasota, herriko el-kartean elkarbanatzen dute, luntx bat izango balitz bezala. Askotan, festa egiteko ez da aurrekontu han-dirik behar.

GAU BELTZAREN GONBITA

Gastronomia momentu politak ditu Gau Beltzak, eta bestelako hainbat elementu erakargarri: ilun-tzea, lagunartea, otordu bereziak, sustoak... eta bi-de batez, baita tabu bilakatu dugun heriotza bizi-dunen aldera ekartzeko aukera ere.

Heriotzaren inguruan hausnartzen dugu aldi honetan, baratzea lantzeko balio du, naturaren zi-kloekin eta garaian garaiko produktuekin goza-tzeko bide ematen digu, gorputzean sustoaren zi-rrara sentituko dugu, eta hau dena, euskaraz eta Euskal Herritik pentsatuta. Eta zuk, zer ospatuko duzu?